

Lezoko merkataria eta ostalariek Covid-19ari aurre egiteko gauzaturiko inbertsioak arintzeko laguntzak

Lokalak eta laneko moduak egokitzeko inbertsioak, ekipamenduak, segurtasun eta osasun neurriak hartzeko inbertsioak...



Onuradunak

Beren kontura lanean diharduten pertsonak edo autonomoak, baita enpresa txikiak ere, beren forma juridikoa gorabehera, 10 langile baino gutxiago badituzte eta txikizkako merkataritzaren nahiz ostalaritzaren sektoreetan badaude. Horrez gain, urteko negozio-bolumenak ez du 1 milioi euro gaindituko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- Inbertsioak eta ekipamenduak, baita inbertsioak gauzatzeko azterketak ere, Covid-19 koronabirusari aurre egiteko jardura ekonomikoak prestatzera bideratuak badaude:
 - Lokalak eta laneko moduak egokitzea.
 - Segurtasun eta osasunaren irizpideak/protokoloak betetze aldera, merkataritza- edo ostalaritza-lokalak moldatzeko inbertsioak eta ekipamendua.
 - Bezeroekin eta erakunde hornitzaileekin harreman berriak antolatze aldera, laneko moduak egokitzeko inbertsioak eta ekipamenduak.
- Diruz lagundutako jarduerak, fakturen datak eta ordainketak 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra artean egingo dira.



Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- **I. ERANSKINA.** Dirulaguntzaren eskabidea.
- **II. ERANSKINA.** Eskaera hirugarrenak aurkezten badu, laguntza eskatu nahi duen pertsonak/enpresak baimen-agiria egin beharko du eta hori aurkeztuko da.
- Jardura ekonomikoaren gaineko zergaren ziurtagiri historikoa.
- **III. ERANSKINA.** Erantzukizuneko adierazpena, interesdunak edo ordezkariak sinatua, ereduaren arabera.
- **IV. ERANSKINA.** Beste administrazio publiko batzuei xede bererako egindako beste dirulaguntza eskaeren gaineko aitortpena.

Eskaera egiteko moduak

Lezoko Udalera erregistro elektronikoaren bidez.
Udaleko erregistroan bertan

Zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko:

Oarsoaldea Garapen Agentzia

www.covid19oarsoaldea.com

Edo telefono zenbaki honetara deituaz:

943 494 129